

"INTERNATIONAL CONNECTING TALENT 2022-2023" MUGIKORTASUN PROGRAMA:

PROIEKTU BERRITZAILEAK BULTZATZEKO ETA TALENTUAK GARATZEKO DONOSTIAKO GAZTEENTZAKO NAZIOARTEKO MUGIKORTASUN PROGRAMAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

ATARIKOA

Donostia Sustapena SAK, Donostiako Udalaren garapen ekonomikorako sozietateak, besteak beste **hiriaren garapen ekonomiko eta soziala** bultzatzea du xede, batez ere **kohesio eta jasangarritasun** irizpideei jarraituz eta hiriko zenbait eragilerekiko eta horien arteko **adostasun eta elkarlanetik, berrikuntzaren** aldeko apustu garbia eginez hiria eraldatzeko eredutzat.

2011z geroztik, Donostia Sustapenak eta Donostiako Udalak estrategia hori inplementatzeko urteko plana izan dute, **Ekonomia Bultzatzeko Plana**. Tresna hori sendotuta dago goranzko bilakaerari eta ezarritako helburuak betetzeari esker, eta, horri esker, hiriaren erronka sozial eta ekonomikoei aurre egin ahal izan zaie, tokian-tokian nahiz globalki, azken 10 urteetan, lehiakortasuna eta posizionamendua areagotuz.

Pandemiaren eragin handiak markatutako 2021eko urte zaila emaitza onekin gainditu ondoren, Donostiako Sustapenak tokiko Ekonomia Bultzatzeko Plan berria proposatu du 2022rako.

Donostiako Ekonomia Bultzatzeko 2022ko plan berriak bide berri bati ekin ahal izatea proposatzen du. Bide horrek, **pertsonengan** oinarritutako ekintzen bidez, aurrera jotzearen eta etorkizunari aurre egitearen aldeko apustua egiten jarraitzen du, **proiektu berritzaileen** garapena babestuz eta proiektu horiei, talentuaren garapenari eta **hiriari** berari euskarri eman diezaieketen tokiko ekosistemaren funtsezko eragileekin sarean lan eginez.

Donostiako Sustapenak hiriari izaera lehiakorragoa eta berritzaileagoa ematen jarraitu nahi du, baina baita sozialagoa, irekiagoa eta kohesionatuagoa ere, gazteen, berdintasunaren eta auzoen arteko gizarte-kohesioaren aldeko apustua egiten duen hiri-eredua indartzeko, 5 ardatzen bidez:

- **Donostia kohesionatua**, lan aukera berriak garatuz eta foku berezia jarriz zailtasun handienak dituzten kolektiboetan.
- **Donostia ekintzailea**, tokiko lehiakortasunari gora eragingo dioten enpresa proiektuak bultzatuz.
- **Donostia** zerbitzu komertzialen hiritzat, kalitatezko merkataritza-ehun berritzailearen alde eginez.

- **Donostia Zientzia eta Berrikuntzan** oinarritutako garapen ekonomikoaren eredu gisa.
- **Donostia Hiri Eraldaketako** proiektu berrien abangoardian.

5 ardatz horien bidez, Donostiako Sustapenak hiriari izaera lehiakorragoa eta berritzaileagoa ematen jarraitu nahi du, baina baita sozialagoa, irekiagoa eta kohesionatuagoa ere, gazteen, berdintasunaren eta auzoen arteko gizarte-kohesioaren aldeko apustua egiten duen hiri-eredua indartzeko.

Horretarako, Donostiako Sustapenak tokiko enpresa-proiektu berritzaileen hazkundera eta lehiakortasun-hobekuntzara bideratutako laguntza hauek planteatzen ditu, **"International Connecting Talent 2022-2023" mugikortasun programa**, bai gazte kualifikatuak sartuz, bai transferentzia teknologikorako, bai proiektu horien ekintza estrategikoak garatuz.

XEDAPENAK

1. ARTIKULUA. HELBURUA

Programaren helburua **hiriko berrikuntzako ekosistemako nazioarteko harremanak sortzea eta sustatzea da, baita Donostiako gazteen gaitasunak garatzea eta balio erantsia duten lan aukerak eskaintzea ere.**

Helburua lortzeko, Donostiako Sustapenak nazioarteko mugikortasun programa jartzen du Donostiako gazteen eskura, hain zuzen, "**International Connecting Talent 2022-2023**" izenburuko programa. Programa honen bidez, unibertsitate titulua eta/edo lanbide heziketako goi mailako gradua duten Donostiako gazteek atzerrian erreferentzia diren erakundeetan egonaldiak egin ditzakete. Donostiako gazteen mugikortasuna bultzatzen du, berrikuntzarako gaitasunak gara ditzaten, eta haien profil akademikoan oinarritutako proiektuak egitea ahalbidetzen du, gazteak lan munduan sartzea hobetzeko.

Garatuko diren proiektuek, beraz, hiriarentzat berritzaileak eta estrategikoak izan behar dute, berrikuntza, talentua eta bertoko ekosistemaren garapenari lotuta egoteaz gain.

Programa honetan datza:

- Bekei eta nazioarteko praktikei buruzko Informazio/Prestakuntza Jardunaldia. Jardunaldi horren edukia eta datak Donostiako Sustapenak zehaztuko ditu, eta onuradunak nahitaez joan beharko du.
- 6 hilabete egonaldia atzerrian, nazioarteko erakunde batean; laguntza esleitu ondoren hasiko da egonaldia.
- **9.180 euroko** dirulaguntza, **6 hilabeteko** egonaldietarako, egonaldian sortzen diren gastuak ordaintzeko (horren baliokidea da: 1.530 euro gordin/hilabete). Dirulaguntza gisa emango diren zenbatekoei PFEZ atxikipenak ezarriko zaizkie, baita aplikatu behar diren eta indarrean dauden Gizarte Segurantzako kuotak ere.
- Connecting Talent komunitatean sartzea

Proiektuen sorrera kontuan hartuta, honako modalitate hauek bereiziko dira:

1. MODALITATEA: "International Connecting Talent-Helmugak":

Donostiako Sustapenak identifikatutako eta zehaztutako proiektuak dira; haien artean hautagaiek beren interesekoa aukeratuko dute. Bi motatakoak dira.

1.a) Proiektu estrategikoak garatzeko nazioarteko guneak: Atzerrian kokatutako erakundeen proiektu berritzaileak dira, donostiar gazteek Connecting Talent Estrategiaren esparruan garatzeko. Erakunde horiek erreferentzia antolakundeak, sareak, hiriak eta eragile garrantzitsuak izango dira, talentua erakartzeko eta berrikuntza garatzeko lan egiten dutenak.

1.b) Donostiako berrikuntzaren inguruko tokiko ekosistemako eragileek proposatutako proiektu interesgarriak: Gazte talentudunen mugikortasuna errazteko hitzarmenaren/lankidetzaren bidez, hainbat eragilerekin garatzen diren proiektu garrantzitsuak dira. Eragile horiek Donostian dute langunea, eta elkarlanean aritu nahi dute proiektuak garatzeko langile oso gaituak bilatzen dituzten atzerriko erakundeekin, beren proiektuak burutzeko.

1. MODALITATEA: "Zure proiektua garatea"

Modalitate honetan, interesdunak erakunde eta proiektu bat aukeratu behar du, bere garapen profesionala aurrera eramateko eta bere profilari eta helburuei egokitzen zaien espezializazio gaitua lortzeko.

Hiriaren estrategiarekin bat datozen berrikuntza proiektuak izan behar dute, nazioarteko erreferentzia den erakunde batean garatzen direnak eta Donostiako garapen estrategiari balioa eranstean diotenak. Deialdi honetako baldintza guztiak betetzen dituzten gazteek bakarrik aurkeztuko dituzte proiektuak.

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostiako Sustapenak guztira LAUROGEHITA HAMAIKA MILA ZORTZIREHUN EURO (91.800 €) bideratuko du “**International Connecting Talent 2022-2023**” Mugikortasun Programarako; zenbateko horrekin 6 hilabeteko **10 proiektu** finantzatuko dira.

Donostia Sustapenak beretzat gordetzen du Mugikortasun Programarako bideratutako zenbatekoa edo finantzatuko diren proiektuen kopurua aldatzeko eskubidea.

3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Dirulaguntzaren onuraduna izango da laguntza lortu duen ekintza beteko duen pertsona fisikoa, edo laguntza jasotzea legitimatzen duen egoeran dagoena, baldin eta Oinarri hauetan aipatutako baldintza guztiak betetzen baditu.

Oinarri hauetan, dagozkion dirulaguntzak eskatzeko bete behar diren baldintzak eta haiek egiaztatzeko moduak zehaztuko dira; izan ere, kasu guztietan Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da. Ondorio horietarako, aipatu legea bete behar dela esanbidez adierazten da.

Dirulaguntza ezin izango zaie eman honako egoera hauetako batean dauden pertsoneri:

- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta/edo Gizarte Segurantzarekikoak betetzen ez badituzte.
- Ebazpen irmo baten bidez dirulaguntza eta/edo laguntza publikoak jaso ahal izateko aukera galtzea dakarren zigorra ezarri bazaie, edota horretarako ezgaitzen duen lege debekua badute, sexuan oinarritutako diskriminazioagatik ezarritakoak barne, Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.
- Donostiako Udalarekin eta/edo Donostiako Sustapenarekin zorrak badituzte.
- Lehenago eman zaizkien dirulaguntzak edo horien zati bat oraindik itzuli ez badute, dagokion zenbatekoa itzuli dela egiaztatzen ez den bitartean.

4. ARTIKULUA. ONURADUNEK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

Onuradunek honako baldintza hauek bete behar dituzte, deialdian parte hartu ahal izateko:

- a) Diploma, lizentzia, gradu edota goi mailako lanbide heziketako titulu bat edukitzea.
- b) 2023eko urtarrilaren 1ean 30 urte bete gabe izatea.
- c) Donostian etenik gabe errolatuta egotea, gutxienez 2021ko urtarrilaren 1etik aurrera, edo aurreko a) apartatuan aipatutako ikasketak Donostian egin izana, baldin eta pertsona hori EAEko herrietako batean errolatuta egon bada.
- d) Kasu guztietan, ingeles maila altua edukitzea (C1) eta helmugako herrialdeko hizkuntzaren maila altua beharrezkoa den kasuetan, eta kasuan-kasuko proiektuaren arabera. Horretarako, aipatu maila egiaztatzen duen ziurtagiria eskatuko da edo ahozko proba bat eta idatzizko proba bat egingo da, eskatzailearen ezagutza maila zehazteko.
- e) Atzerrian 6 hilabete edo gehiagoko egonaldia egiteko aukera ematen duen bekarik jaso ez izana.
- f) Praktikak egingo diren enpresa edo erakundeak eskatzen duen lanbide profila edukitzea.
- g) Dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera kentzen duen zigor administratiborik edo penalik ez izatea, ezta laguntzak jasotzeko desgaitzen duen lege debekurik ez izatea.
- h) Programa hasteko unean, langabezian egotea edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea. Izena emateko eguna beka hasteko eguna baino lehenagokoa izango da. Langabetuak ezin dira egon Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean edo Langile Autonomoen Araubide Berezian langile gisa izena emanda, beka hasi aurretik.

Donostiako Sustapenak beretzat gordetzen du oinarri hauetan ezarritako baldintzak bete direla ziurtatzeko beharrezkotzat hartzen duen informazioa eskatzeko eskubidea.

5. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Programa honek barnean hartzen ditu ekintza eta kontzeptu hauek:

- a) **Prestakuntza ikastaro bat, doakoa eta nahitaezkoa** onuradun guztientzat; Donostiako Sustapenak zehaztuko du edukia kasuan-kasuan, eta onuradunak praktikak hasi aurretik egin beharko du ikastaroa.
- b) **6 hilabete bitarteko egonaldia atzerrian**, nazioarteko erakunde batek eskatutako iraupenaren arabera; dirulaguntza esleitu ondoren hasiko da egonaldia.
- c) **9.180 euroko dirulaguntza 6 hilabeteko egonaldietarako**, hau da, **1.530 euro gordin hilabeteko**, helmugako herrialderako bidaiaren gastuak, mantenua, ostatua, eta egonaldian egin beharreko gastuak ordaintzeko. Dirulaguntza gisa emango diren zenbatekoei PFEZ atxikipenak ezarriko zaizkie, baita aplikatu behar diren eta indarrean dauden Gizarte Segurantzako kuotak ere.
- d) **Gaixotasun eta istripu arriskuaren estaldura**, baita hirugarrenetik erantzukizun zibileko gastuak ere; aseguru hori Donostiako Sustapenak kontratatu eta ordainduko du.
- e) Gizarte Segurantzako kotizazioa, kasuan-kasuan dagokion kotizazio araubidean.
- f) **Connecting Talent komunitatean** sartzea.

Kasu guztietan, pertsona onuradunak, dirulaguntza jaso ahal izateko, Donostiako Sustapenak ezarri dituen baldintzak bete beharko ditu. Donostiako Sustapenak erabakiko du baldintzak bete diren ala ez.

6. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

Dirulaguntza hauek ematea ez da bateragarria izango helburu eta epe bera duten beste dirulaguntzekin, administrazio edo erakunde publiko zein pribatuetakoek, Espainiako, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeek emandakoekin, Donostiako Sustapenak esanbidez baimena eman ez badu. Nolanahi ere, dirulaguntza hau bateragarria da Segurantzaren Sozietatearen indarrean dagoen legediaren arabera aplikatzekoak diren murriztapen edo hobariekin.

7. ARTIKULUA. ESKABIDE ORRIAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaerak aurkezteko epea Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta deialdia itxi arte iraungo du, hots, **2023eko Otsailaren 24a** arte.

Eskaerak telematikoki aurkeztuko dira, Donostiako Sustapenaren webgunearen bidez (www.fomentosansebastian.eus).

Edozein informazio eskatzeko edo galdera egiteko, 943 482800 telefonoa erabil daiteke, edo becas_fss@donostia.eus helbide elektronikoa, gaian honako hau adierazita: "International Connecting Talent 2022" Mugikortasun Programa.

Donostiako Sustapenak aukeratutako proiektuak telematikoki argitaratuko dira www.fomentosansebastian.eus webgunean, non azalduko diren diruz lagundu nahi diren proiektuen kopurua, ezaugarriak, baita eskaerak formalizatzeko epeak ere.

Donostiako Sustapenak, urtean zehar sortzen diren aukera eta elkarlanen arabera, helmugak argitaratuko ditu.

Proiektu modalitate bakoitzean, aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau izango da:

1. MODALITATEA: "International Connecting Talent-Helmugak"

- a) Interesa piztu duen proiektuaren eskaera, Donostiako Sustapenaren webgunearen bidez.
- b) *Curriculum vitae*a ingelesez eta gaztelaniaz.
- c) Eskatutako titulua edukitzea frogatzen duen dokumentazioa eta, hala badagokio, eskumena duen agintaritzak emandako homologazio egokia.
- d) Aurreko apartatuan adierazitako baldintza frogatzen duen ziurtagiria, ingeles hizkuntzarena. Horretarako, aipatu maila egiaztatzen duen ziurtagiria eskatuko da edo ahozko proba bat eta idatzizko proba bat egingo da, eskatzailearen ezagutza maila zehazteko.
- e) Jaiotze dataren egiaztatzea (NANA, jaiotze agiria edo data hori frogatzen duen beste agiriren bat).
- f) Eskatzailea errolatuta dagoen EAEko herriko udalak emandako errolda ziurtagiria.
- g) Eskatzailearen erantzukizun adierazpena. Agiri hori oinarri hauei erantsita dago eta webgunean egongo da jaisteko.
- h) Eskaerari lotutako proiektuari buruzko motibazio gutuna (ingelesez eta gaztelaniaz).

Eskaera egiterakoan, webgunean indarrean dauden proiektuetako bat bakarrik aukeratu beharko da. Eskatzailea proiektu horretarako aukeratu ezean, Donostiako Sustapenak beste proiektu baterako esleitu ahal izango du.

Donostiako Sustapenak zuzenean eskuratuko du zerga betebeharrak betetzearen egiaztapena ere, ziurtagiri telematikoen bidez (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udala Zerga Bilketa).

Dirulaguntza eskatzerakoan eta ordainketak egiterakoan Udal Zerga Bilketa, Foru Ogasun eta/edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen ez dituzten pertsonak ordainketa horiek egunean dituztela egiaztatu beharko dute.

Eskatzaileak esanbidez egin dezake Donostiako Sustapenak datu horiek egiaztatzearen aurka; halakoetan, erabaki horren arrazoiak azaldu beharko ditu (Datuak babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua), eta dagozkion ziurtagiriak aurkeztu:

- Dirulaguntza eskatzen duen pertsonak dagozkion zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Donostiako Udalaren ziurtagiria, dirulaguntzaren eskatzaileak udalarekin zorrik ez duela egiaztatzen duena.

Onuradunak bere gain hartzen du egindako erantzukizunpeko adierazpenen eta aurkezten dituen beste dokumentu guztien egiazkotasunaren erantzukizun osoa.

Donostiako Sustapenak beharrezkoa den beste informazio eska dezake, oinarri hauek betetzen direla ziurtatzeko.

Agiriak epe barruan aurkezten ez badira, eskaera ez da aintzat hartuko.

2. MODALITATEA: "Zure proiektua garatzea"

- a) "Zure proiektuaren garapena" modalitatean parte hartzeko eskabide orria, Donostiako Sustapenaren webgunearen bidez.
- b) *Curriculum vitae*a ingelesez eta gaztelaniaz.
- c) Eskatutako titulua edukitzea frogatzen duen dokumentazioa eta, hala badagokio, eskumena duen agintaritzak emandako homologazio egokia.
- d) Aurreko apartatuan adierazitako baldintza frogatzen duen ziurtagiria, ingeles hizkuntzarena. Horretarako, aipatu maila egiaztatzen duen ziurtagiria eskatuko da edo ahozko proba bat eta idatzizko proba bat egingo da, eskatzailearen ezagutza maila zehazteko.
- e) Jaiotze dataren egiaztagiria (NANA, jaiotze agiria edo data hori frogatzen duen beste agiriren bat).
- f) Eskatzailea errolatuta dagoen EAEko herriko udalak emandako errolda ziurtagiria.
- g) Eskatzailearen erantzukizun adierazpena. Agiri hori oinarri hauei erantsita dago eta Donostiako Sustapenaren webgunean egongo da jaisteko.
- i) Nazioarteko proiektuaren deskripzio memoria, egonaldia izango den helmugaren izena, deialdi honetako esparruan egingo den jarduera eta arrazoiketa, baita helmugako erakundearen onespena ere ("Application Form Proiektua" eranskina).

Donostia Sustapenak zuzenean eskuratuko du interesdunen zerga betebeharrak betetzearen egiaztapena ere, ziurtagiri telematikoen bidez (Gipuzkoako Foru Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa).

Dirulaguntza eskatzerakoan eta ordainketak egiterakoan Udal Zerga Bilketa, Foru Ogasun eta/edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen ez dituzten pertsonen ordainketa horiek egunean dituztela egiaztatu beharko dute.

Eskatzaileak esanbidez egin dezake Donostiako Sustapenak datu horiek egiaztatzearen aurka; halakoetan, erabaki horren arrazoiak azaldu beharko ditu (Datuak babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua), eta dagozkion ziurtagiriak aurkeztu:

- Dirulaguntza eskatzen duen pertsonak dagozkion zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Donostiako Udalaren ziurtagiria, dirulaguntzaren eskatzaileak udalarekin zorrik ez duela egiaztatzen duena.

Onuradunak bere gain hartzen du egindako erantzukizunpeko adierazpenen eta aurkezten dituen beste dokumentu guztien egiazkotasunaren erantzukizun osoa.

Donostiako Sustapenak beharrezkoa den beste informazio eska dezake, oinarri hauek betetzen direla ziurtatzeko.

Agiriak epe barruan aurkezten ez badira, eskaera ez da aintzat hartuko.

8. ARTIKULUA. ESKAERETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

Donostiako Sustapenak agiri guztiak berrikusten baditu eta ondo beteta ez daudela ikusten badu edo agiriren bat falta bada, eskatzaileari hamar egun balioduneko epean zuzenketa egiteko edo behar diren agiriak emateko eskatuko dio, hala egin ezean, eskaera izapide gehiagorik gabe baztertu egingo dela adierazita.

Zuzenketa egiteko eskatutako agiriak telematikoki aurkeztuko dira. Ez da posta elektronikoz bidalitako justifikaziorik onartuko, baldin eta Donostiako Sustapenak esanbidez onartu ez badu.

Donostiako Sustapenak azalpenak eska ditzake, beharrezkoa dela ikusten badu.

Donostiako Sustapenak esanbidezko ebazpena emango du eskaera bat onartu edo ukatzeko.

9. ARTIKULUA. IZAPIDEAK ETA ESLEIPENA

Dirulaguntza izapidetu eta esleitzeko prozesua modalitate bakoitzerako orain adieraziko den moduan burutuko da.

1. MODALITATEA: "International Connecting Talent-Helmugak"

Esleipena norgehiagoka prozeduraren bidez egingo da; horretarako, eskatzaileen profilak eta –dagokion proiektua kontuan hartuta– egokitasuna baloratu eta konparatuko dira, haien artean erlazio bat ezartzeko. Horretarako, hainbat fasetako hautaketa prozesua burutuko da. Faseetako bat gainditzen ez duten eskatzaileak ez dira hurrengo fasera joango, eta, ondorioz, beren eskaera gaitzetsi egingo da. Hau da, faseetako bakoitza baztertzailea izango da. Prozesuko faseak honako hauek izango dira:

1.– Baldintzak egiaztatzea: aurkeztutako agiriak berrikusiko dira (*curriculum vitae*ren eta motibazio gutunaren azterketa, tituluaren eta prestakuntza osagarriaren balorazioa), atzerrian proiektu batean aritzeko eskatzaile izateko baldintzak betetzen diren egiaztatzeko.

Baldintza hauek betetzen ez dutenek ezingo dute programan parte hartu.

2.– Ingeles proba: dagozkien agirien bitartez (C1) ingeles maila frogatzen ez duten eta programa honetan parte hartu nahi duten pertsonen nahitaezko azterketa egingo zaie, hau da, ahozko proba bat eta idatzizko proba bat. Azterketa gainditu duten pertsonen izenak Donostiako Sustapenaren webgunean agertuko dira.

Beste hizkuntzetarako ez da maila probarik egingo; hizkuntza maila kontuan hartu ahal izateko, dagozkion agiriak aurkeztu beharko dira beste agiriekin batera, eta elkarrizketan bertan baloratuko dira.

3.– Hautagaiaren profilaren egokitasunaren balorazioa: Donostiako Sustapenak edo hark horretarako azpikontratutako laguntzaile batek egingo dituen elkarrizketen bidez, hautagaiaren profila proiektua egingo den enpresak edo atzerriko erakundeak eskatzen duenaren arabera den baloratuko da. Elkarrizketan, eskatzailearen jatorrizko dokumentazioa berrikusiko da.

4.– Helmugako erakundearen azken balorazioa: erakundeek azken elkarrizketa egingo dute edo *curriculum vitae*a baloratuko dute, azken erabakia hartzeko; aurretik hautatutako hautagaien azken elkarrizketa izateko aukera eskatu ahal izango dute.

Hautaketa prozesua amaitzean, Donostiako Sustapenak prozesuaren fase guztiak gainditu dituzten pertsonen zerrenda argitaratuko du webgunean, eskaeran aipatutako proiektuaren arabera lortutako puntuazio osoa eta esleitutako proiektua adierazita.

Dirulaguntza eskatu duten pertsonen zuzenean jakinaraziko zaie ebazpena, eta onuradunen zerrenda argitaratuko da. Bestalde, programa honen kasuan, onuradunen zerrenda Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Araudiaren 115. artikularen 2. atalean aipatzen den zerrenda publikoan agertuko da.

Deialdi honi buruzko jakinarazpenak bitarteko elektronikoez edo telefonoz egingo dira, eskatzaileak eskabide orrian jarri dituen helbide elektronikora eta telefono zenbakira.

Onuradunak taldeko informazio saio batera deituko dira programaren ezaugarriak, antolakundearen eta/edo proiektuaren izaera, egonaldia egingo den herrialdeari buruzko datuak, baita programak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoa den informazio guztia ere azaltzeko.

2. MODALITATEA: "Zure proiektua garatzea"

Eselepena norgehiagoka prozeduraren bidez egingo da; horretarako, eskatzaileen profilak eta –dagokion proiektua kontuan hartuta– egokitasuna baloratu eta konparatuko dira, haien artean erlazio bat ezartzeko. Horretarako, hautaketa prozesu bat burutuko da; horretan parte hartzeko, eskatzaileek jarraian aipatzen diren baldintzak eta balorazio irizpideak bete beharko dituzte:

1.– Aurkeztutako proiektuaren balorazioa

Proiektua **nazioarteko proiektuaren** **Deskripzio eta Justifikazio Txostenean** bildutako informazioaren arabera ebaluatuko da. Txostenak jasoko ditu: helmugaren izena, deialdi honen esparruan egingo den jarduera eta bere azalpena, baita helmugako erakundeak konpromiso eskutitz bidez adierazitako berariazko onarpena ere ("Application Form proiektua" eranskina).

Oinarriak kontuan harturik aurkezten diren proiektu guztiak 100 puntuko mugarekin baloratuko dira.

Proiektuak ebaluatzeko, honako irizpide hauek erabiliko dira:

1. Proiektuaren balorazioa	
1.1 Proposamenaren diseinua eta kalitatea	40
1.2 Berrikuntza ahalmena eta balio ekarpena	20
1.3 Egingo diren lanak, horretarako egokitasuna, helmugako erakundearen konpromisoa	20
1.4 Proiektua egiteko profil egokia izatea	20
PROIEKTUAREN PUNTUAZIO OSOA	100

Ez dira kontuan hartuko gutxieneko puntu kopurua lortu ez duten eskaerak: **gutxienez 75 puntu.**

Donostiako Sustapena gutxieneko puntuaziorik lortu ez duten eskatzaileekin harremanetan jarri ahal izango da, proiektua ondo ulertu dela ziurtatzeko, baldin eta 65 puntu edo gehiago (6 hilabeteko proiektuen kasuan) edo 75 puntu edo gehiago (12 hilabeteko proiektuetan) lortu badute.

2.– Baldintzak egiaztatzea eta eskatzailearen profila baloratzea:

Eskatzaileak baldintzak betetzen dituen egiaztatuko da, aurkeztutako dokumentazioa aztertuz eta baloratu: *curriculum vitae*a, motibazio gutuna, tituluak, formakuntza osagarria. Hizkuntzaren kasuan, eskatzaileak maila egiaztatzen duen ziurtagiririk aurkeztu ez badu, ahozko eta idatziko proba bat egingo da, hizkuntzaren ezagutza zehazteko.

Hautagaiaren egokitasunaren balorazioa osatzeko, Donostiako Sustapenak edo hark horretarako azpikontrata dezakeen laguntzaile batek elkarrizketa bat egingo dio, eskatzailearen profila egokia den ebaluatzeko eta aurkeztutako proiektua egiaztatzeko. Elkarrizketan, eskatzailearen jatorrizko dokumentazioa berrikusiko da.

Eskatzaileak baldintzak betetzen ez baditu eta/edo bere profila egokia ez bada, bere eskaera ez da onartuko.

Dirulaguntza eskatu duten pertsonen zuzenean jakinaraziko zaie ebazpena, eta onuradunen zerrenda argitaratuko da. Bestalde, programa honen kasuan, onuradunen zerrenda Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Araudiaren 115. artikulua 2. atalean aipatzen den zerrenda publikoan agertuko da.

Deialdi honi buruzko jakinarazpenak bitarteko elektronikoz edo telefonoz egingo dira, eskatzaileak eskabide orrian jarri dituen helbide elektronikora eta telefono zenbakira.

10. ARTIKULUA. FORMALIZATZEA, JUSTIFIKATZEA ETA ORDAINTZEA

Egonaldi aurreko formalitateak:

Nazioarteko egonaldia formalizatu ahal izateko, dirulaguntza jasoko duen onuradunak, esleipenari buruzko jakinarazpena egin eta hurrengo 15 egun naturaleko epean, jarraian aipatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu (baldin eta, arrazoi zehatz batengatik, Donostiako Sustapenak beste epe bat esanbidez baimentzen ez badu):

- Atzerrira irten aurretiko egunean langabezian egotea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea egiaztatzen duen agiria.

- Donostiako Sustapenaren eta programan parte hartzen duen pertsonaren arteko lankidetzaren hitzarmen sinatua.
- Donostiako Sustapenak Gizarte Segurantzaren alta emango dio onuradunari, atzerriera joan aurretik. Horretarako bere Gizarte Segurantzako zenbakia beharko du.
- Ordainketak egiteko banku datuak ematea.

Onuradunak nahitaez egin beharko du Donostiako Sustapenak eskaintako prestakuntza ikastaroa. Bestela, dirulaguntza ezin izango da formalizatu.

Bai 1. MODALITATEAN, bai 2. MODALITATEAN, eta 6 hilabeteko proiektuen kasuan, atzerriko egonaldia hasteko muga eguna **2023ko irailaren 15a** izango da, Donostia Sustapenak, arrazoiak azalduz gero, egonaldia hasteko beste epe bat esanbidez baimentzen ez badu.

Justifikazioa eta ordainketa

Dirulaguntza hiru zatitan ordainduko da.

Lehen ordainketa (% 50) Donostiako Sustapenak beka formalizatzeko aurkeztu diren agiriak egiazkoak direla eta onuradunak prestakuntza ikastaroa egin duela ziurtatu eta gero egingo da.

Bigarren ordainketa (% 40) egonaldiaren erdia igaro eta gero egingo da, Donostiako Sustapenak onuradunarengandik honako bi txosten hauek jaso dituela ziurtatu eta gero:

- Egonaldiko lehen hilabetearen zehar, atzerriko erakundearekin adostutako Lan Plana.
- Egonaldiaren erdialdean, proiektuaren gauzatze maila eta egonaldia amaitu arte egiteko jardueren plana zehazten dituen Jarraipen Txostena.

Donostia Sustapenak txosten bien egokitasuna egiaztatuko du eta ontzat hartzen baditu, Jarraipen Txostena baliozkotzat jo eta hurrengo 30 egunetan bigarren ordainketa egingo du. Donostiako Sustapenak txostenetako bat egokitzen ez badu, onuradunari adieraziko dio, baliozkotzat jo aurretik egin beharreko zuzenketak egin ditzan.

Hirugarren ordainketa eta likidazioa (% 10, behar diren atxikpenak kenduta; bekadunaren konturako gizarte-segurantza; eta %2, Donostia Sustapenak bekadunaren izenean Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zerga Agentzian ordainduko duen PFEZa dela-eta.) egonaldia amaitu ondoren egingo da, onuradunak egonaldian zehar egindako jardueren guztien xehetasunak, proiektuaren emaitza eta onuradunaren gogobetetze maila, atzerrian izandako esperientziari dagokionez, biltzen dituen azken txostena eman eta gero. Donostiako Sustapenak hurrengo hilabetearen azken txostena egokia dela egiaztatuko du, eta, horrela bada, hirugarren ordainketa –azkena– egingo du.

Txosten guztiak telematikoki aurkeztuko dira, Donostiako Sustapenaren webgunean dagoen aplikazioan. Ez dira onartuko posta elektronikoz bidalitako justifikazioak, Donostiako Sustapenak esanbidez baimendu ez badu.

11. ARTIKULUA. UKO EGITEA

Programari uko egiten bazaio, falta diren ordainketak ez dira egingo eta uko egin arte jasotako diru kopururen bat itzultzeko eska daiteke, uko egitea ezinbesteko kasuen ondorioa denean izan ezik.

Itzuli behar den diru kopurua kalkulatzeko, zehaztuko da egonaldiaren aurreikusitako iraupenaren eta dagokion dirulaguntzaren arteko erlazio proportzionala, eta, jasotako dirua igarotako denbora tarteari dagokiona baino handiagoa bada, jasotako soberakina beka eman duen erakundeari itzuli beharko zaio.

Beka hasi eta gero uko egiten bazaio, eskatzailea ezin izango da berriro aurkeztu, bekari ezinbesteko kasuaren ondorioz uko egin ez badio.

12. ARTIKULUA. BETEBEHARRAK EZ BETETZEAGATIK AMAITZEA EDO DERRIGORREZ AMAITZEA

Oinarri hauetan ezarritako betebeharren ez-betetze larria gertatzen bada edo behin eta berriz errepikatzen bada, edo egonaldia derrigorrean amaitu behar bada, onuradunak jasotako zenbateko guztiak itzuli behar izango ditu. Adibide moduan, baina kasu guzti-guztiak aipatzeko asmorik gabe, ez-betetze larritzat eta/edo errepikakortzat joko da dokumentazio ofiziala faltsutzea, kopiatzea, plagioa, proiektua aurkeztean hirugarrenen eskubideak urratzea eta abar. Ondorio berdinak izanik, beka derrigorrean amaitzeko kasua izango da honako hau: proiektua garatzen ari den enpresak onuraduna diziplina arrazoiengatik kaleratzea (berandu iristea; lanera ez etortzea; lankide edo nagusiekiko errespetu faltak, esleitutako eginkizunak ez-betetzea; alkoholaren edo drogen eraginpean joatea lanera eta abar).

Dirua laurogeita hamar (90) egun naturaleko epean itzuli beharko da, Donostiako Sustapenak onuradunari aurreko paragrafoan aurreikusitako itzulketa arrazoiren bat dagoela burofax bidez jakinarazten dionetik zenbatzen hasita.

Era berean, dirua itzuli beharra eragiten duen arrazoi bat dagoenean –lehenago aipatutakoen artean–, galdu egingo da geratzen diren kopuruak jasotzeko eskubidea.

13. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Dirulaguntzaren esleipena onartzea. Horri dagokionez, dirulaguntza esleitu dela jakinarazten denetik 15 egun naturaleko epean onuradunak esanbidez eta idatziz uko egiten ez badio, dirulaguntza behin betikoz onartu duela joko da.
- b) Helmugako herrialdera joan aurretik prestakuntza ikastaroa egitea.
- c) Onuraduna egonaldia egiteko onartu duen erakunde edo enpresak esandako lanak egitea, aurretik ezarritako edo adostutako lan planari jarraikiz.
- d) Donostiako Sustapenak eskatzen dizkion txostenak –praktikaldiari buruzkoak– hiru hilean behin egitea eta bidaltzea.
- e) Donostiako Sustapenak ezartzen dituen lan ebaluaketetan parte hartzea.
- f) Uko eginez gero, soberako dirua itzultzea.
- g) Donostiako Sustapenak "International Connecting Talent" programa dela eta antola ditzakeen ekitaldi eta jardunaldietan parte hartzea.
- h) Onuradunei esleitutako helmuga alda daiteke, herrialde bakoitzak eskatzen dituen bisen edo baimenen mende dagoelako. Horri dagokionez, COVID-19aren osasun krisiaren ondorioz, eta pertsonen mugikortasun murrizketak kontuan izanik, bai Espainia mailan, bai nazioartekoan, programako parte hartzaile guztiek bere gain hartuko dute helmugako estatuak bertan sartzeko, egoteko eta irteteko ezarri dituen lege arau eta baldintza guztiak betetzeko ardura eta konpromisoa.
- i) Helmugako herrialdera heldu eta gero, kontsuletxean edo enbaxadan izena ematea, egonaldian zehar egoitza zehazteko.

14. ARTIKULUA. DONOSTIAKO SUSTAPENAREN BETEBEHARRAK

Donostiako Sustapenak honako betebeharrak izango ditu onuradunekiko:

- a) Onuradunari egonaldia egin aurretiko formakuntza ematea.
- b) Atzerrian egonaldiak egingo diren enprekin eta erakundeekin berriazko lankidetzak hitzarmenak sinatzea, onuradunak behar dituen baldintza materialak eta teknikoak ezartzeko, hala nola non izango den, zenbat iraungo duen, adostutako lan plana eta oinarritzotzat joko diren beste gai batzuk.
- c) Onuraduna gaixotasun edo istripu arriskuetatik babesteko duen eta hirugarrenen aurreko erantzukizun zibileko gastuak estaliko dituen aseguru poliza kontratatzea.
- d) Dirulaguntzaren zenbatekoa ordaintzea, Oinarri hauen aurreko paragrafoetan ezarritako arauari jarraikiz, bai 1. Modalitatearen ("*International Connecting Talent-Helmugak*"), bai 2. Modalitatearen ("*Zure proiektua garatzea*") kasuan.
- e) Onuradunari Gizarte Segurantzaren alta ematea eta dagokion kotizazioa ordaintzea.

15. ARTIKULUA. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Datuen babeseko indarreko araudiak dioenari jarraikiz, Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak eskatzen dituztenei jakinarazten zaie eskabide orriaren bidez ematen dituzten datu pertsonalak, baita beste agiri guztiak ere, dirulaguntza izapidetu eta/edo kudeatu bitartean, Donostiako Udalak tratamendurako gorde eta erabiliko dituela, Tratamenduaren Arduradun moduan, eta Donostiako Sustapenak kudeatuko dituela, tratamenduaren eragile moduan. Tratamenduaren helburua eskabidea kudeatzea eta dirulaguntza horiek izapidetzea izango da.

Tratamenduaren zilegitasun oinarria Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.e) artikulua da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (DBEO). Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak egikaritzeko egindako misio bat betetzeko: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriari buruzkoa; eta 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa.

Oinarri hauetan edo eskabide inprimakietan hala adierazten bada, nahitaezkoa izango da datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa ematea, eta datu akastunak emateak edo datuak ez hornitzeak eragotzi egingo du eskabidea kudeatzea.

Datuak bildu ziren helburua betetzeko behar den denbora guztian gordeko dira, bai eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko beharrezko izan litekeen denbora guztian ere.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak Donostiako Sustapenarekin lan egiten edo kofinantzatzen duten Espainiako edo atzerriko erakundeetara igaro daitezke, beharrezkoa denean, eta soilik dirulaguntza emateko gestioak egiteko.

Era berean, jakinarazten da laguntzak emateak berekin ekarriko duela onuradunaren identifikazio datuak jakinaraztea edo lagatzea, eta, horretarako, datu horiek, emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera, Donostiako Sustapenaren webgunean argitaratuko direla, baita Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere –azken kasu horretan, emandako dirulaguntza 3.000 eurotik gorakoa denean bakarrik edo, zenbatekoa edozein izanda ere, eskatzeko modukoa denean–.

Eragindako pertsonak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea baliatu ahal izango dute hala dagokionean, baita araudi honetan aurreikusitako bestelako eskubideak ere. Horretarako, Donostiako Udaleko Udalinfo zerbitzuarekin jarri beharko da harremanetan: Ijentea 1, 20003 Donostia.

Herritarrak bere eskubideak baliatzeko orduan behar bezalako arreta jaso ez badu, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, lehen auzialdian, datuak babesteko Donostiako ordezkariari aurkeztu ahalko dio erreklamazioa: dbo@donostia.eus.

Ondorio horietarako, adierazten da eskatzaileak, eskaera aurkezten duenean, berariaz onartzen dituela aurreko paragrafoetan adierazitakoaren ondoriozko komunikazioak edo datu lagapenak.

16. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

Indarrean jartzea eta onartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko dira, eta bertan argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

Interesdunak eskaera aurkezten badu, Oinarriak osorik onartzen dituela esan nahi du.

Erantzukizunetik salbustea.

Onuraduna izango da laguntzaren xede den jarduera egin aurreko edo ondorengo jarduketan ondorioz sortzen diren kalte pertsonal eta/edo materialen erantzule bakarra, eta Donostiako Sustapenak ez du inolako erantzukizunik izango kontzeptu horiengatik.

Donostia, 2022eko abenduaren 7a.

Marisol Garmendia Beloqui.

Ekologia, Osasun Publiko, Garapen Ekonomiko eta Enpleguko zinegotzi ordezkaria.